


1- BALOREZKO PROPOSAMENA

2017ko urtarrilaren 1ean Rivas Vaciamadriden beste gizon baten sastakiaz hil zuen bere 40 urteko bikote ohia.

2017ko otsailaren 21ean gizon batek bere emaztea hil zuen arma zuri batez Santa Perpétua de Mogodanen.

2017ko urriaren 31n Aronan, Tenerifen beste batek bere 24 urteko bikotea ito zuen.

Gizon guzti hauek urruntze agindu bat zuten gutxienez, eta ez dira horrelako kasu bakarrak ondorengo estadistikek erakusten duten bezala.



Hildako hauen, ohikoak diren indarkeria modu hauetako bat gutxienez sufritu dute: indarkeri psikologikoa, biktimaren osotasun psikikoa arriskuan jarri dezakeen edozein egoera. Mehatzua, iraina, gutxiespena, isolatzea eta inkomunikatzea... ; indarkeri fisikoa, hemen sartzen dira biktimaren segurtasun fisikoa arriskuan jarri edo kaltetu dezaketen egoerak, besteak beste, halako jokabideak sartzen ditu barne: bultzatzea, jotzea, erretzea, edota biktima erasotzeko armak erabiltzea...; indarkeri ekonomikoa eta ondarezkoa, dirua erabiltzea ukatzen zaionean tratu txarrak jasaten dituen pertsonari, honakoak hartzen ditu barne: xantaia ekonomikoa, diru-sarrerak kontrolatzea, elkarren arteko ondasunetan emakumeari esku hartzen galaraztea, emakumeari lan egiten ez ustea...; indarkeri sexuala, biktimaren baimenik gabe egiten diren sexu praktikei deritze (bortxaketak); ...

Arazo larri honekin amaitzeko asmoz eta kasu gehiago ekiditeko, berrikuntza bat sortu dugu. Gutxienez, salaketa egin eta urruntze agindua lortu duten emakumeei laguntza eskaini ahal izateko. Izan ere badaude antzeko produktuak baina ez dira eraginkorrak.

Asmakuntza horrek bi eskumutur berezik osatutako sistema batean datza. Bi eskumuturrekoak zeharo desberdinak dira.

Lehenengo eskumuturrekoa, erasotzaileak eramango du eta bateria bat darama. Bateriaren %80a gastatzerakoan, automatikoki poliziari seinale bat iristen zaio aldatu behar dela jakinarazteko. Horrela, poliziak azkar erreakziona dezake eta bateriaren aldaketa segituan egingo da. Gainera, etxeko espetxeratzea duten presoek eskumuturrekoek daramaten sistema berdina du, beraz, erasotzaileak eskumuturrekoa kentzea guztiz ezinezkoa da.



Beste eskumuturrekoa, biktimak daramana, pilei esker dabil. Eskumuturreko hau erloju bat da eta gainera, uhalean piperbeltzeko likidua gordetzen du. Erlojuaren goialdean botoi bat eta zulotxo bat ditu. Botoia sakatzerakoan, likidua esprai eran ateratzen da.



Erasotzaileak bere urruntze agindua ez duenean errespetatzen, hau da, gehiegi hurbiltzen denean, bi eskumuturrekoak aktibatu egiten dira eta gertuen dagoen komisaldegia seinaleak bidaltzen dizkiete. Gainera, soinu jasanezin bat sortzen dute erasotzailea, biktima eta inguruko edozein, jakinarene gainean jartzeko. Izan ere, 120-130 dezibeleko soinua sortzen dute 10 segundoz, hau denbora tarte horretan giza belarriak jasan dezakeen soinurik altuena da. Hau guztia eskumuturrekoek irrati- frekuentzia, GPS eta sare mobilaren bidezko geolokalizazio sistema izateari esker gertatzen da.

Hau guztia kontuan hartuta, beharrezkoa da produktu hau merkaturatzea hilketak ekidituko dituelako eta gizarteari onura nabariak ekarriko dizkiolako.